

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **38/2020 Mozioa, ekainaren 29koa, lehenengo sektorea babesteko neurriei buruzkoa**

Arabako Batzar Nagusi hauetako Nekazaritza VIII. Batzordeak, 2020ko ekainaren 29an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

38/2020 Mozioa, ekainaren 29koa, lehenengo sektorea babesteko neurriei buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek nekazaritzak eta abeltzaintzak duten funtsezko izaera aitortzen dute, elikagaien eta ingurumen-zerbitzuen hornitzaile gisa. Sektore horiek berebiziko garrantzia dute despopulazioari eta erronka klimatikoari erantzuteko.

2. Arabako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuari eta Diputatuen Kongresuari eskatzen diete are gehiago sakon dezatela duela gutxi egin duten Elikakatearen Legearen aldaketan, funtzionamendua hobetu eta orekatzeko, merkataritza-harremanen gardentasuna areagotzeko eta praktika desleialak, hala nola galera-salmenta, saihesteko. Halaber, Legea betetzen dela bermatzeko kontrola areagotzeko ere eskatzen diete, Elikagaien Informazio eta Kontrolerako Agentziaren (AICA) bidez.

3. Arabako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuari eskatzen diote euskal erakundeekin batera Nekazaritza Politika Erkide berri bat defendatzeko Europar Batasunaren aurrean, ustiategi errentagarritasuna, belaunaldi-aldaketa, elikagaien segurtasuna, landa-eremuko zerbitzuak eta klima aldaketaren zein ingurumenaren arloko beharrianak bermatzeko besteko aurrekontuarekin.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ekoizpen-egituren eta bitartekoen modernizazioa, nekazaritza-eredu jasangarriak, familiaustiategi berritzaileak, hurbileko merkaturatzebideak eta ekoizpenaren dibertsifikazioa babesteko, eta landa-eremuko egitura sozioekonomikoa indartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 29a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**